

935.506 euro gutxiago izango ditu Tolosako aurrekontuak, birmoldatu ostean

Kultur, kirol eta gizarte alorreko taldeei ematen zaizkien diru laguntzak eta inbertsio publikoa mantenduta egin dute birmoldaketa //3

Tabernen ordutegia mugatuko dute bihartik, Villabonan

Ordu bata arte egongo dira zabalik; udaletik adierazi dute uztailaren 24tik 31ra ez dela jairik izango, eta arduraz jokatzeko eskatu dute //2

Positiborik ez da atzeman Tolosaldean azken 24 orduetan //2

Aro berriari ekin dio Amezketako Zazpi Iturri elkarteak //7



Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak, ekimenaren berri ematen. JOSU ARTUTXA

Kanpalekuetara materiala bidaltzeko


Aurtengo udan haur sahararrak harreraren hartzeko programa antolatzea ezinezkoa izan denez, elkartasun karabana jarri dute martxan, materiala herriz herri bildu eta sahararrei helarazteko //6

gorriti | martínez

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa

Tel: 943 650 192

www.gorritimartinez.com



PVC



ALUMINIOA



EGURRA

Atzo emandako datuen arabera positiborik ez da zenbatu Tolosaldean

Aurreko egunetako joera aldatu eta eskualdean ez du kutsatu berririk atzeman Osasun sailak; Gipuzkoan 20 kasu dira

Erredakzioa

Eusko Jaurlaritzak atzo eman zuen herenegungo datuen berri eta iturri horien arabera eskualdean ez zen positiborik izan. Gipuzkoan, aldiz, 20 kasu zenbatu zituzten, Bizkaian 63 eta Araban 5. Osasun sailak emandako datuen arabera, astelehenean 3.682 PCR proba egin zituzten EAEn. Kutsatuen kopurua ez da egonkortu inondik ere, baina gutxitu egin dira positiboak astebururitik. Gipuzkoan izan dira azken egunetan foku nagusiak, baina nabarmen jaitsi da kasu berrien kopurua.

UDALEKUAK BERTAN BEHERA

Pasa den asteburuan, herriko aisialdi talde, ikastetxe eta eragile-etako ordezkariak bildu ziren Olatz Peon Tolosako alkatea, eta udaleko Gazteria Saileko zinegotzi eta teknikari arduradunak, Osasun sailak udalekuak bertan behera uzteko agindua ezagutzera eman ondoren.

Gauzak horrela, udalak antolatutako Auzolandegiak udaleku irekiak, zein talde eta ikastetxe-ek antolatzen dituztenak bertan behera geratu dira Osasun sailaren agindua indargabetu bitartean. Beraz, astelehenaz geroztik etenda daude jarduera horiek, hala nola, ikastetxeek zein aisialdi taldeek antolatutako udaleku irekiak eta ludotekak, kirol zein kultur taldeek eskainitako ikastaroak, tailerrak eta kanpusak, eta Auzolandegiak egitasmoa. Edozein modutara, guztiek udalekuak antolatzeko egin duten ahalegina eta azken asteotan egindako lana eskertu nahi izan du udalak.

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZAK

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefonora.

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona euskaldun bat beharko genuke. Deitu telefono honetara: 688 784 412.



Laborde eta Lopez zinegotziak, erdian Beatriz Unzué alkatea dutela. AINHOA AROZENA / AIURRI

Villabonan tabernen ordutegia mugatuko dute bihartik aurrera

Amasa-Villabonako Udalak arduraz jokatzeko deia luzatu eta adierazi du uztailaren 24tik 31ra ez dela jairik izango; Tabernak gehienez ordu bata arte mantenduko dira zabalik

Jon Miranda Amasa-Villabona

Duela aste batzuk Santio jai batzordeak jai egitaraurik ez osatzeari eta jaiak bertan behera uztea erabaki zuen. Amasa-Villabonako alkate Beatriz Unzuere esanetan, «zentzuz eta ardura osoz» hartutako erabaki «egokia» izan zen hura, «ez baikaude festa eta ospakizunetarako». Udalak argi utzi nahi izan du uztailaren 24tik 31ra ez dela jairik izango herrian.

Jendarteari honako deiak luzatu dizkio alkateak: «Ez etorri Amasa-Villabonara festa eta parranda egitera, ez baita horrelakorik egongo. Herriko jendeari, jaien ordezkari plan alternatiborik ez osatzea eskatzen diogu. Gogorazi nahi dugu debekatuta dagoela 10 lagunetik gorako koadrilletan bildu eta hara eta hona ibiltzea». Unzuere aitortu du hartu behar izan diren neurriak ez direla inoren gustukoak eta udal gobernuarentzat ez dela erraza izan herriko jaiak muzin egin behar izatea. «Baina guztien osasuna jokoan dagoenean, ezin diogu arduragabekeriari inolako zirri-

kiturik utzi», adierazi du prentsa agerraldian.

Amasa-Villabonako Udala «kezkak» agertu da COVID-19aren berragertzeen berri izaten ari garen honetan. Udal ordezkariak esan dute ez dugula pandemia gainditu eta birusak gure artean jarraitzen duen artean, ezinbestekoa dela guztiok arduraz jokatzeari eta segurtasun neurriak behar bezala betetzea. Beti maskara erabiltzea, pertsonen arteko distantzia mantentzea eta jende pilaketak saihestea oso garrantzitsuak dela aipatu du alkateak. «Kezkaz bizi dugu batez ere gaueko parranda giroari lotuta gazteen artean ematen ari den birusaren zabalpena eta hori Amasa-Villabonan ere gerta ez dadin neurriak hartzea behartuta ikusi dugu gure burua. Izan ere, inon ez gaude COVID-19aren agerpen eta zabaltzeetatik salbu».

TABERNEN ORDUTEGI MUGATUA

Udalak Amasa-Villabonako ostalaritza establezimenduen ordutegiak mugatzea erabaki du uztailaren 23tik aurrera (egun

hori barne); Gehienez ere 01:00 arte mantendu ahal izango dira tabernak zabalik eta ordu horretan derrigor itxi beharko dute.

«Hainbat tabernari bere kabuz erabaki hori hartu zuten dagoeneko eta udaletik tabernari hauek erakutsi duten ardura eta zentzua txalotu nahi dugu. Espero dugu herriko tabernari guztiak modu berean portatzea eta herritarren osasuna lehenestea, norberaren interes ekonomikoaren gainetik», esan du Unzuere. Udal ordezkariak aste honetan gutun baten bitartez jakinarazi die erabakia herriko ostalariei.

Udala jakitun da prebentzio neurri honek sektorean ondorio kaltegarriak sortuko dituela, baina hobea iruditzen zaio orain neurri hau ezartzea, ondoren, birusaren zabalpena medio, are neurri zorrotzagoak hartu behar izatea baino. Norabide berean, alkateak esan du tabernak ixtean jendea kaleetan taldeetan bilduta geratzea saihestu behar dela, «tabernak ixtearekin ez baitugu ezer lortuko, ondoren jendea kalean pilatzen bada».

Komikigintza lantegia egingo dute Alkizan datorren ostiralean

Erredakzioa Alkiza

Iñaki Martiarena *Mattin* komikigileak komikigintza lantegia eskainiko du Alkizan uztailaren 24an, ostiralean, 17:00etatik 18:00etara. Ikastaroan parte hartzeko ezinbestekoa da aldezturritik izena ematea.

Ikastaroa 7 urtetik gorako alkitzarrei eskainita dago, eta gehienera ere, 10 ikasleko taldea onartuko da. Parte hartu nahi dutenek, 3 euro ordaindu beharko dituzte. Trukean, ikastaroan zehar erabiliko duten materialaz gainera, Mattinen *Belardo*, *ba al zatoz* albumaren ale bana ere jasoko dute.

Izena emateko mezu bat bidali beharko da kultura@alkiza.eus helbidera edo bestela WhatsApp mezua bidali daiteke 688 604 466 zenbakira.

Tanta txartelak eskuragarri izango dira Anoetako saltokietan

Erredakzioa Anoeta

Anoetako Herri Ikastolak jakinarazi du Tanta txartelak eskuragarri daudela herriko taberna eta komertzioetan.

Proiektu pedagogikoak aurrea eramateko premiazko bultzada ekonomikoa jasotzeko, jaiaren egunean edo urtean zehar diru sarrerak lortzeko zenbait ekimen antolatzen ditu Ikastolen Elkarteak: arropa salmentak, txosnak edo kultur eta kirol ikuskizunak, esaterako. Zozketak ere baliabide garrantzitsuak dira ikastolentzat. Jai bakoitzak berea antolatu izan du orain arte eta hainbat sari banatu izan dituzte. Aurten, ordeza, zozketa horiek egin ordeztu, elkartasun txartelak egitea erabaki eta horretarako sortu dute Tanta.

Bost euroren truke eskuratu ahal izango da txartel bakoitza eta, trukean, parte hartzaileek 60.000 euroko zozketan parte hartuko dute. Zozketa urriaren 21ean izango da.

Kalera itzuli dira osasunari buruzko hitzaldiak

Konfinamenduan, 'Osasuna Etxean' ekimena bultzatu zuen, Asuncion Klinikak. Orain, 'Osasuna Klean' izenarekin, Zerkausira bueltan da.

Josu Artutxa Dorronsoro

COVID-19aren pandemiak eta ezohiko egoerak eraginda, *Osasuna Klean* hitzaldi sorta geldiarazi behar izan zuen Asuncion Klinikak. Urtarrilean eskaini zuen aurtengo saio bakarra, Topic zentroan. Gero, *online* bidez eskaintzen hasi ziren hitzaldiak, *Osasuna Etxean* deituriko ekimenarekin.

Orain, baina, Zerkausira itzuli dira. Hori bai, saioak entzutera joan nahi dutenek, segurtasun eta higiene neurriak bete behar dituzte. Nahitaezkoa izango da musukoa jantzita eramatea eta sartzerakoan eta irteterakoan eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea. Gainera, bertaratzen direnei tenperatura hartuko zaie eta eserleku guztiak desinfektatuko dituzte antolatzaileek. Hitzaldiak doakoak diren arren, edukiera aldetik ere muga bat ezarri da, eta gehienez, 50 lagun sartu ahal izango dira.

ALZHEIMERRA ETA ELIKADURA

Saio bakarra eskaini da oraingoz. Uztailearen 9an izan zen, eta Francisco Fasano klinikako neurorquirurgia zerbitzuko medikua,

gerrialdeko eta lepoko minen inguruan aritu zen.

Gaur izango da bigarren saioa. *Alzheimer: prebentzioa, maneioa eta tratamendua* hitzaldia eskainiko du Lucas Gomez neurologoak. Zaintza eta maneioa erraztu dezaketen berrikuntzak eta dementzien tratamenduari buruzko gomendioak azalduko ditu. «Gaur egun, sendabiderik ez badago ere, zenbait tratamendu eta ebakuntzek pertsonen eta haien zaintzaileen bizitza hobetu dezakete», diote klinikatik.

Irailaren 3an, berriz, Ariane Nuñez dietista-nutrizionistak, elikaduraren inguruko mitoei buruz hitz egingo du, dietetikari eta nutrizioari buruzko zalantzak eta bitxikeriak argituz.

Azkenik, irailaren 24an, Jesus Valero erreumatologoak itxiko du hitzaldi sorta. Dietak osteoporosian duen garrantziari buruz hitz egingo du. «Egiaztatuta dago elikadura eta osteoporosia funtsezkoak direla, bai gure hezurretan dituen ondorioak gutxitzeko, baita haustura-arriskua murrizteko ere, bizi-kalitatean kalte handia egin baitezakete», diote klinikatik. Hitzaldi guztiak 18:00etan hasiko dira.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua ebaluatuko du Tolosako Udalak

TOLOSA // Datozen asteetan egingo da azterketa. Horretarako, zerbitzuaren erabiltzei galdetegi bat bidaliko zaie etxera. Betetzean, udaletxean utzi edo gizartezerbitzuak@tolosa.eus helbidera bidali behar da, abuztuaren 7a baino lehen. Erabiltzaileen laguntzaileek eta senideek ere badute bere esparruko galdetegi bat betetzeko aukera.

Zerkausiko terraza ireki dute, herritarren aisialdirako

TOLOSA // Herriko eremuen eta horien erabileraren azterketa egin ondoren, gune publikoak antolatu ditu udalak herritarren eskura egon daitezen. Horrela, Zerkausiko terraza irekitzea erabaki du, prebentzio eta segurtasun neurri guztiak hartuta. 09:00etatik 22:00etara egongo da zabalik, herritarrek aisialdirako edo lasai egoteko erabil dezaten.

935.506 eurotan murriztu da 2020ko aurrekontua

Azken osoko bilkuran onartu zuen Tolosako Udalak, zenbait diru laguntza eta inbertsio publikoa mantenduta; aurreikusitako proiektu batzuek ere aurrera jarraituko dute.

J. Artutxa Dorronsoro

2019ko likidazioa ezagutu ostean egin du 2020ko aurrekontuaren birmoldaketa Tolosako Udaleko gobernua. Izan ere, aurrena gerakina zenbatekoa den ezagutu nahi izan da neurriak eta erabakiak hartzeko. «Oraindik ere egoera aldakorra da eta udalak gaitasuna izan behar du egungo beharrei erantzuteko, baina baita etorkizunean sor litezkeen egoera eta behar berriei erantzuteko ere», diote. Aurreikusita zeuden proiektuen artean, aurrera jarraitzen dute Emakumeen Etxeak, Laskoain kaleko eta Gernikako Arbolako birmoldatze lanek, haur parkeetakoek, eguzki panelen instalakuntzek eta Abegi zentroko obrek.

Kultur, kirol eta gizarte alorreko taldeei ematen zaizkien diru laguntzak eta inbertsio publikoa mantenduta egin da birmoldaketa, herriko taldeen eta tokiko enpresa txiki eta gremioen jarduna babestea lehenetsita. Zehazki 935.506 eurotan murriztu da aurrekontua eta kredituei izaera ez erabilgarria eman zaie, aurrera begira erabili beharko balira prozesua arinagoa izan dadin.

Onartu beharreko puntu honetan, abstenitu egin zen EH Bildu, udal gobernuaren aldetik «estrategiarik eza» ikusi zuelako. «Konpromiso handiagoa, plan zehatzagoa, norabide gehiago eta gogoeta handiagoa» eskatu zuen Aitana Amondarain zinegotziak. Horri, Olatz Peon alkateak erantzun zion: «Udal Gobernuak egiten dituen gastu eta proiektu guztiek herritarrak dituzte lehentasunezko ardatz».

Bestetik, espazio publikoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasetan hobariak ematea onartu da. Terrazen kasuan, %50ekoa aplikatu zaie ostalariei, eta ez dute espazio handiagoa erabiltzeagatik gehiago ordaindu beharko. Azokan, %100ekoa izango da 2. eta 3. hiruileko kuotan, eta %50ekoa urte osokoan.



Tolosako Udaleko ekaineko osoko bilkurako irudi bat. TOLOSAKO UDALA

Gainera, herriko parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze lanen zerbitzu-kontratuak luzatu eta berrikusiko ditu udalak, baita 2020ko zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantza orokorrak edota 2020ko zerbitzu

publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasen ordenantza fiskalak aldatu ere.

Azkenik, ondasun higiezin, hondakinen eta terrazen tasa nahiz zergak ordaintzeko borondatezko epeak atzeratu ditu udalak, herritarrei ahalik eta erraztasun gehien emateko.



	ATARIKIDEAK	BESTEAK
BOTILA BAT	6 EURO	8 EURO
BI BOTILA	10 EURO	14 EURO

BOTILAK EROSTEKO 943 65 56 95 TELEFONORA DEITU
BEHAR DA BULEGORA JOAN BAINO LEHENAGO.

Bizikleta ibilaldi honetan eskualdeko herririk altuenera igo beharko da, Bidania-Goiatz (489 m); itzulerako bidean, Albiztur ezagutzeko geldialdia egingo dugu, eta handik, Urkizu auzotik igaroz, Tolosara iritsiko gara

Tolosaldeko herririk garaienera

Joxemi Saizar

Sasoian al zaudete? Bada, ibilaldi hau egiteko indar guztiak beharko dituzue, eskualdeko mendaterik altuenetako dena igotzea tokatzen baita.

Hasteko, Tolosatik Olarrainearaino (hau baita leku horren izena, eta ez bertan zegoen jatetxe batena) bidegorria erabiliz joango gara, beste ibilaldi batzuetan bezala, eta bertara iristean, Azpeitira doan errepidea (GI-2634) hartuko dugu.

Aldapa leuna dago hasieran, baina berehala gogortuko da, ha-


rrobi zaharraren parean. Albizturko bidegurutzean arnasa hartu eta igoeraren bigarren zatia ekiten presta zaitezte. Santutxoko bentan Santa Marina auzora edo Beizamara joateko aukera dago, etapa luzatu nahi izanez gero.

Oraingoan, baina, Bidania-Goiatzeraino joatearekin konformatuko gara. Bidania mendatea da ibilbideko punturik garaiena (511 m), eta handik herrira zelaia

da. Dakizuen bezala, herri hau bi herri ziren 1964. urtera arte. Bidanian, San Bartolome eliza, udaletxea eta Iriarte Jauregia hotela (eskualdeko eta Gipuzkoa barnealdeko lau izarreko bakarra, jauregi batean kokatua) ikus-teak merezi du. Herritik urrutia-go, Santa Ageda eta San Pedro ermitak topatuko ditugu. Goiatzen, Bidanitik oso gertu, Jasokundeko Andra Mari eliza ikus daiteke. Bidanian, gainera,

Santutxoko bentan Santa Marina auzora edo Beizamara joateko aukera dago, etapa luzatu nahi bada

Bidania mendatea da punturik garaiena, eta bertan probintziako garaierarik handiena duen etxea dago



Bidaniko San Bartolome eliza, herriko interesguneetako bat. J.S.

probintzian garaierarik handien dagoen etxea dago, Ernio magaleko Berazeaga baserria, hain justu.

Donostiako gotzaina izan zen Lorenzo Bereziartua bertan jaio zen, baita Jexux Arzallus bertso-laria eta Juan Miguel Otaegi *Betelu* harri-jasotzailea ere.

ALBIZTURREN GELDIALDIA

Itzulerako bidean, mendatea igoz gero, dena aldapa behera izango dugu eta Albiztur ezagutzeko aprobetxatuko dugu. Horretarako, Intxurralde baserriko bidetik sartuko gara herrian (GI-

3041). Udaletxea, Jasokundeko Andra Mari eliza, San Gregorio basiliza eta garbitegi ederrak ikus daitezke. Millan Telleria eta Anjel Mari Peñagarikano bertso-lariak dira bertako seme entzute-tsuenak.

Ugarte jatetxetik abiatuta, Tolosako auzo bat bisitatzeko aukera dago: Urkizu (519 m). Horretarako, aldapa gogorra izango duzue, eta ondoren zazpi kilometroko jaitsiera bihurgunetsua Tolosaraino. Bestela, zuzenean itzul daiteke abiapuntura, igotzeko hartutako bide bera jarraituz.

**HOTEL
AIRE
DE
BARDENAS**

ZOZKETA

Bi pertsonarentzat bi gaueko egonaldia Aire de Bardenas hoteleko suite batean. Gelak patio pribatua eta kanpoko bainuontzia ditu.

(Erreserba hotelean duten erabilgarritasunaren arabera izango da)



Zozketan parte hartzeko epea uztaillaren 23ko 11:00k arte, 943 65 56 95 edo www.ataria.eus-en.

Leyre Carrasco
Amasa-Villabona

Lain taldea 2008an eratu eta hiru disko kaleratu ostean, 2016an desegin zen. Kristina Aranzabe, billabonatarra Leire Berasaluzerekin batera Lain taldeko ahotsa izan zen. Egun ere, bere kide izan zenarekin eta Nerea Erbiti abeslariarekin batera, Joseba Tapiaren proiektu berrian murgilduta dabil.

Lain zortzi urtez izan genuen gurekin. Nola gogoratzen duzu taldearen ibilbidea?

Gorabeheratsua esango genuke. Hasieran golpetik oihartzun handia izan zuen eta espero gabeko zerbaitek harrapatu gintuen, ez geunden oso prest eskatzen zitzaigun horri erantzun bat emateko. Gero pixkana lerro horretan mantentzen saiatu ginen, eta bertan pertsona eta musikari moduan heltzen joan ginen. Gorabeherak izan genituen aldaketak egon zirenean taldean. Ni adibidez kanpora joan nintzen ikastera, Imanol, taldeko beste kidea ere bai... Aldaketa guzti horiek azkenean gure ibilbidean eragina izan zuten, eta pixkana itxiera bat bezala izan zen.

XVIII. Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi zenuten 'Aukera berri bat' abestiarekin. Sorpresa handia hartuko zenuen dei hori jasotzean, ezta?

Bai, egia esan abestia ez zegoen prestatuta inongo txapelketara aurkezteko. Beraz, jolasean ibili ginen. Gainera, Leirek aurkeztu zuen abestia guri ezer esan gabe eta dena sorpresa bat izan zen, ez genekien lehiaketa horretara aurkeztu ginenik ere.

Maketa lehiaketaren ostean erabaki zenuten Lain taldea sortzea. Nola animatu zineten musika mundura salto egitera?

Ni musika munduan abesteko ideia horrekin egon naiz betidanik. Umea nintzenetik Villabonako koruan parte hartu izan dut eta beti izan da gustuko izan dudana zerbait. Nire kideek Javi,



«Ez geunden oso prest eskatzen zitzaigun horri erantzun bat emateko»

KRISTINA ARANZABE
ABESLARIA

Txiki-txikitatik pasio izan denak egun ere izaten jarraitzen du; Lain taldearen amaierak proiektu berri bateko atea ireki dio.

Jon, Imanol eta Leirek ere beti izan dute musikarekin harremana, ume-umetatik.

2016ko ekainean taldea desegingo zela adierazi eta azaroaren 19an eman zenuten azken kontzertua, hain zuzen Tolosako Bonberenean. Gogoan duzu azken kontzertu hura?

Bai, eta baita lehenengoa Aretxabaletako taberna batean eman genuela ere. Bigarren kontzertua, azkenengoaren antzera Tolosako Bonberenean izan zen. Leku horrekin badaukagu nola baiteko atxikimendu berezi bat, eta azkenekoa adibidez oso berezia izan zen.

'Tximeletak' diskoa atera ostean, Lain desagertu zen... Bakoitza bere proiektuetan hasi al zen?

Bai, hori da. Nik uste dut, musi-

POP-ROCKA

2008. urtean sortu zen Lain taldeko kide izan dira Leire Berasaluze, Kristina Aranzabe, Jon Altuna, Imanol Urkola, Javi Rivero, Mikel Benito eta Joseba De Arriba. Zortzi urteko ibilbidean hiru disko argitaratu zituzten. Taldearen izen bereko diskoa 2009an; Leihoak 2011an eta azken diskoa, Tximeletak, 2015ean. ATARIA

karekin behintzat, denok hartu genuela denbora bat geldirik egoteko. Batzuek aktiboago jarraitu dute, adibidez, Mikel, Joseba eta Leirek; besteok Javi, Jon eta nik gehiago egin dugu guretzat, norberarentzat. Musikarekin denok jarraitzen dugu kontaktuan, baina modu desberdinean.

Zertan ari zara gaur egun?

Oraintxe bertan musika aldetik geldirik ez nago. Gauza txikiak ari naiz egiten, batez ere Leirerekin batera. Joseba Tapiak proiektu berria atera du, eta bere taldearen parte gara abeslari moduan Leire Berasaluze, Nerea Erbiti eta ni, beste hainbat musikarirekin batera. Uztaillaren 3an eskaini genuen konfinamendu osteko lehenengo kontzertua. Beraz, musikalki momentuz horrekin nabil eta ateratzen zaizkidan beste gauza batzuekin kolaborazio moduan, baina proiektu pertsonal moduan ezer ez dut.

Lain taldearen musika entzuten jarraitzen duzu?

Bai, noizean behin jartzen dut eta nostalgia puntu bat badago. Agian, Lainekin aktiboago geunden momentu horretan egin ez genuen analisisa egiten ari naiz orain; gure kanta entzun, gelditu eta analizatu; beti ere distantzia batetik eta maitasun handiarekin. Beti dauzkagu gauzak hobetzeko, baina gustu handiz entzuten dut.



LEYRE CARRASCO



Audi A3 Sportback 40 e-tron

Entxufatu daitekeen Audiren teknologia hibridoa



Autowag Tolosa
Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81



audi.es/tfsie



150 kWko (204 CV) Audi A3 Sportback 40 e-tron. CO2 isuri konbinatuak: 43tik 46 g/km-ra. (NEDC: 43tik 46 g/km-ra). Kontsumo konbinatua (erregaia): 1,9-2 l / 100 km.

Babes eta laguntza eskasiaren aurkako sendagaia

Tolosaldea Sahararekin Elkarateak material bilketa bat jarri du martxan; osasun arloko materiala ere bildu nahi dute



Aurten etorriko ez direnez, ez da agur festarik izango haur sahararrentzat. I.U.

Josu Artutxa Dorronsoro

Uda berezia izaten ari da guztiontzat, baita eskualdeko herriar askorentzat ere. Aspaldiko urteetan, haur sahararrak etorriko ez diren lehen aldia izango da baita ere. Izan ere, Tolosaldea Sahararekin Elkarateak ezin izan du aurrera eraman Oporrak Ba-kean programa.

«50 gradutik gorako tenperaturak eta jaki eta ur eskasiak infernu bilakatzen duten gunean igarotzen dute uda milaka sahararrek», nabarmendu dute. Urtero, 300 haur inguru ateratzen

dira infernu horretatik, uda Euskal Herrian igarotzeko. Nabarmendu dutenez, hurrek ezingo dituzte programak dituen onurak izan. «Ezingo dute medikuarengana joan, ezingo dira ondo elikatu, eta ezingo dute bueltan eramaten duten material poltsa eraman». Uda gogorra izango da, beraz, saharar herriarentzat, baina bereziki, bertako haurrentzat.

Aitortzen dutenez, jaitsi egin dira Euskal Herritik nahiz nazioartetik bidaltzen zaizkien babes eta laguntzak. Gauzak horrela, EAEko Fronte Polisariooko Ordezkaritzak proiektu bat osatu

du: *Zuek ezin baduzue etorri, gu joango gara.* «Urrian, errafiazko poltsez betetako ibilgailuak errefuxiatu kanpalekuekaraino eramatea da helburua». Horietako poltsa batzuk harrera familiek saharar familiei bidali ahal dizkieten poltsak izango dira.

Baina, ez dira bidaliko diren bakarrak izango. Izan ere, Tolosaldeko herritarren elkartasunaz ere beteko dituzte beste batzuk. Materiala biltzeko, elkartasun karabana egiten ari dira aste honetan. Astelehenean Amasa-Villabonan izan ziren, atzo Alegian, eta gaur, bihar eta etzi, Ibarako San Bartolome plazan, Ikaztegiatiko plazan eta Tolosako Trianguloa plazan izango dira. Informazioa helarazteko erakusketa txiki bat jartzen dute, 17:00etatik 20:00etara. «Material bilketarekin batera, gure laguntza eskaini nahi diegu. Ahalik eta elkartasun gehiena helaraztea da helburua, baita herri bezala ere, beraiek dituzten erronkei begira».

Batez ere, ikasmateriala lortzen saiatuko dira, saharar haurrek ikasturte berria ahalik eta egokien has dezaten. «Horrez gain, osasun arloko materiala ere bidali nahi dugu, musukoak, gel hidroalkoholikoak eta eskularruak, eta baita fardelak ere».



«Materiala komunitatera ere heltzea nahi dugu, gizartea lehen lerroan jarritz»

EGOITZ LUISA URKOLA TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEKO KIDEA

J. Artutxa Dorronsoro Anoeta

Udan saharar haurrak etxean hartzen ditu Egoitz Luisak (Anoeta, 1983). «Duela lau urte hasi ginen, eta gureak balira bezala sentitzen ditugu», dio. Azken hilabeteetan, birtualki izan dute kontaktua eurekin, baina Luisak aitortzen du ez dela gauza bera.

Zer moduz sentitzen zarete ezohiko egoera hau dela eta?

Triste gaude, haurrak errefuxiatu kanpalekuekatik atera eta bi hilabetez laguntza eskaintzeko aukerarik ez dugulako. Baina aldi berean, arduratuta ere bai. Oraindik ez da birusaren arrastorik topatu bertan. Beraz, hona ez etortzeak balio dezala osasun aldetik haurrak babesteko.

Hala ere, uste duzue neurriak bermatuz etor zitezkeela?

Ez da erraza jakiten. Gehiegizko konfiantza bat izateak bertan birusa sartzea ekar dezake, eta dituzten gabeziak kontuan izanda, triskantza izugarria izango litzaiteke. Gure aldetik oso berekoiak

izango ginateke udara eurekin igarotzean pentsatuko bagenu.

Zer dela eta abiatuko duzue material bilketa?

Saharar haurrak hona etortzen direnean, materialez betetako 28 kiloko poltsa batekin bidaltzen ditugu bueltan, kanpalekuekan aprobetxatu dezaten. Eramaten duten material hori familietara bakarrik ez, komunitatera heltzea ere nahi dugu, gizartea lehen lerroan jarritz. Horregatik, kanpalekuekan osasun arloko materiala erabiltzeko premiarik ez eduki arren, ospitaleetan edo osasun zentroetan erabiltzeko baliatu dezakete.

Otsailean egin zenuten azken bilketa. Zer moduz joan zen?

Aurrekoekin alderatuz, igoera bat izan genuen kilo kopuruan. Hala ere, materiala kanpalekuekara iristeko dago oraindik, dagoen burokraziagatik, Aljeriara igaro ezinik dago. Afrikako herrialdean birusa gogor ari da kolpatzen, eta mugak itxita dituzte.

Eta zeintzuk dira aurrera begira dituzuen helburuak?

Irailean ere, beste bilketa bat egin nahi dugu, eskualdeko herri gehiagotan. Elkartasun sare hau herri txikiagoetara ere heltzea nahi dugu. Bestetik, bilduko den materiala ibilgailu desberdinetan bidali nahi dugu, eta horretarako, udalekin, enprekin eta beste hainbat erakunderekin ere harremanetan jarri gara, erabiltzen ez dituzten ibilgailuak doan emateko eskatuz. Ibilgailu horiek, gainera, gerora sahararrek erabili ahal izateko eskuragarri utzi nahi dizkiegu.

Haurrak etortzen direnean, diru laguntza bat ematen dute udalek, haurren beharrak asetzeko. Hala ere, nahiz eta haurrak ez etorri, behar handia dagoenez, laguntza hori gordetzea eskatzen diegu. Elkartasuna banatzeaz gain, beharrezkoa izaten da dirua.

Hilberriak eta urteurrenak



Antonio Goena Irastorza

Herenegun hil zen 83 urterekin, Elizakoak eta A. S. B. hartu ondoren.

- Goian bego -

Anaia-arrebak: Joxepa eta Lorenzo Zubiaurre, Martina eta Jose Francisco Olano (†), Joxe (†) eta Pepita Portu, Miguel (†) eta M^a Luisa Ruiz, Inaxio eta M^a Pilar Garmendia, Kontxita eta Jose M^a Apaolaza; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak, otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR ASTEAZKENA arratsaldeko SEIETAN SANTA FE Parroki Elizan egingo den hileta elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

ZALDIBIAN, 2020ko uztailaren 22an
Helbidea: Santa Fe kalea, 11 - 1. ezk

Oharra: GAUR ASTEAZKENA gorputz laguntza familia artean egingo da.

ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Ur berria dator iturritik

Amezketako Zazpi Iturri pilota elkarteak etapa berri bati ekin dio, arduradun berriak baititu; Xalton Zabalak urtetan egindako lanari jarraipena eman nahi diote gidari izango diren hiru gazteek

Imanol Garcia Landa
Amezketak

Orain 45 urte sortu zen Zazpi Iturri pilota elkarteak, Xalton Zabala-ren eskutik. Zabalak urte guzti hauetan gidatu du, baina zeregin hori uzteko garaia iritsi da, eta lekukoa hartzeko prest agertu dira hiru gazte. Beñat Beloki bedaiotarrak, Ibai Amundarain amezketarrak eta Jokin Altuna pilotari profesional amezketarrak hartu dute elkartearen ardura.

«Herrian ez zuten nahi klubik gabe geratzea. Aukera eman ziguten gure garaian, eta guk proposamen bat egin genuen. Jendea gustura azaldu zen eta dagoeneko martxan jarri gara eta ea jendeak gustura jarraitzen duen», esan du Belokik. Gurasoek herrian klubak aurrera jarraitzeko nahia erakutsi zuten, pilotan aritu nahi dutenek beste herri batera joan beharrik ez izateko. «Herri pilotazalea da, eta herrian bertan pilotariak ditu eta izan ditu, eta bertan kluba izatea beharrezkoa da», gaineratu du. «Ea orain proiektu polit bat ateratzen dugun aurrera».

Egun 20 eta 30 pilotari artean daude Zazpi Iturri. Neska bakarra dago eta arduradun berriek nahiko lukete gehiagok izena ematea. Hain justu, denboraldia irailean hasten bada ere, dagoeneko zabalik dute izen ematea. Izan ere, kluba bera martxan dago, eta astelehen zein asteazkenetan izaten dira saioak Larrunarri pilotalekuan, 10:00etatik 13:00etara bitartean. LH1etik aurrera eman daiteke izena, eta hortik aurrera ez dago adin mugarik. Azken denboraldia hain berezia izan denez, abuztuan ere jarraituko dute saioekin. «Ea haur eta gaztetxo gehiagok izena ematen duten, eta horrela kluba indartzen joaten garen», esan du Amundarainek. «Gaur egun kadete artekoak ditugu elkartean, eta hitz egiten ari gara hortik gorako mailetakoko pilotariekin Zazpi Iturri etortzeko».

XALTON ZABALAREN LANA

Belokik eta Amundarainek izango dute ardura nagusia eta Altunak lagundu egingo die. «Plus bat da Altuna bezalako pilotari



Jokin Altuna, Ibai Amundarain eta Beñat Beloki, Zazpi Iturriko arduradun berriak, Larrunarri pilotalekuan. MIKEL ARTEAGA

bat, herrikoa dena, taldean izatea. Haurrei ilusioa egiten die he-men entrenatzen ari direla, bera begira izatea eta zerbait esatea. Erreferentzi bat da, eta bultzada bat da elkartearentzat», azaldu du Belokik. «Taldea gaztea gara, ilusioa piztu duena herrian, eta hiruon artean talde polita osatu dugu».

Funtzionamenduari dagokionez, astean pare bat aldiz entrenamenduak egitea proposatzen dute. «Helduagoei entrenamendu fisikoa sartzen hasiko gara, maila bat dutenek behar dutelako, ez baita dena frontoian aritzea», esan du Belokik. «Txikiekin ez da dena partidak jokatzeko izango. Hasiberritan kirolari gustua hartzea izango da, jolasak eta talde lanak eginez».

Zabalak egindako lanari begiratzerakoan, «inbidia pixka bat» sentitzen duela aitortu du Belokik: «Berak egin dituen gauza guztiak ikusita, hau da, profesionalak atera ditu, Zazpi Iturri goi mailako klub bat izatera eramandu txapelketa guztietan puntan ibiltzen zena, txapela asko lortu dituen... Xaltonen lana nabar-

mentzekoa da eta asko izan da Amezketari eman diona. Eta inbidia zentzu horretan da, oso zaila delako berak egindako guztia berdintzea, eta ea lortzen dugun ahal dugun gehien behintzat gerturatzea».

Amundarainen prestatzaile izan zen Zabala. Kadete arte aritu zen pilotan Amundarain, eta gero futbolaren bidea hartu zuen. «Orain futbola utzita dut, eta gustura ari naiz Zazpi Iturri haurrak prestatzen». Beloki bera ere tarteka aritu da Amezketako frontoian entrenatzen, Zabalak horrela eskatuta: «Ikasi egiten zenuen. Berak esandakoak, ze jarrerak hartu behar diren... Gero barneratzen dituzu, eta orain horiek erakustea izango da gure lana».

ELKARTEEN GARRANTZIA

Klubean Amezketako, Abaltzizketako eta Bedaioko pilotariak izan ohi dira. Egun, Berrobiko pilotari bat ere badute. Hain justu, herri txikietan pilota elkarteak izatearen garrantzia nabarmendu dute Zazpi Iturriko arduradun berriek. «Pilota euskal kul-

turaren parte da, eta orain dela urte askotatik dator umeak herri guztietan pilotan aritzearena», esan du Belokik. «Gure inguruko herri guztietan frontoi bat dago, eta frontoi horietan haurrak pilotan jolasten aritzen dira. Garrantzitsua da herrian pilotarekiko afizioa badago, bertan pilota eskola bat izatea. Agian ez du ematen afizionatu arteko maila guztiak izateko, baina haurren adineko mailakoak edukitzeko aukera badago. Garrantzitsua da afizio hori mantentzeko».

Pilotarientzako bakarrik ez, herriarentzako ere pilota elkarte bat izatea garrantzitsua dela nabarmendu dute. «Polita da ere pilota gustatzen zaion horrentzako herrian bertan pilota bizi-rik egotea. Justu egungo egoeran ez da gertatzen, koronabirusaren kontu hau dugulako, baina ziur gaude denboraldia hasten denean baten aitona eta bestearen amona etorriko direla saioak ikustera. Gero ere gustagarria izaten da herriarentzako tarteka pilota partidak izatea». Belokik gaineratu duenez, «pilotak garai okerragoak izan ditu, eta Gipuz-

koan goraka dator. Profesionaletan dauden txapelkunak gipuzkoarrak dira gehienbat eta esango nuke Gipuzkoan ilusio hori berriz piztu dela».

Irailean hasiko dute denboraldia, baina ez dakite zehazki, beste kirol guztietan gertatzen den moduan, nola izango den egoera. «Irailean txapelketak hasten dira, eta beraz, partidak asteburu izango dira», zehaztu du Belokik. «Ez dakigu koronabirusaren kontu honekin nola gauzatu den denboraldia, baina printzipioz irailean hasi eta ekainera bitarte ariko ginatke».

Ezohiko egoera honek ere Jozean Tolosa Txapelketa bertan behera uztea ekarri du. Zazpi Iturri antolatzen duen buruz buruko txapelketa da, eta aurtengoa XXXI.ena izango litzateke. «Aurtentz egitea erabaki genuen, ikusita egoera nola dagoen, eta guk oraintxe hartu dugula klubaren ardura ikusita», esan du Amundarainek. «Egitekotan oso azkar egin behar zen, pilotari guztirekin. Beraz, erabaki dugu datorren urterako utzi eta behar bezala antolatzea».



ASTEAZKENA, 2020KO UZTAILAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 22

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Sahararen aldeko elkartasun karabana, San Bartolome plazan, 17:00etan.

Amasa-Villabona. Elkartasun sarearen bigarren batzar irekia, udal-etxeako pleno aretoan, 19:00etan.

Lizartza. Udal taldearen lehen urtearen inguruko batzar informatiboa, udaletxean, 19:00etan.

28 KANALA

11:00. Martaren eskulanak

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:00. Adinberri

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Lehen lerroan (Aitor Furundarena)

22:30. Errezeta beganoak

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Ignacio Olarraaga Aranburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro nahasiak eta beroak jarraipena izango du. Egunsentian ekaitz hon-darren bat geratuko da. Ondoren, giro lasaiagoa izango dugu hodeiak eta ostarteekin, nahiz eta, ez den baztertu behar arratsaldean zaparrada isolaturen bat botatzea. Haizeak ipar/ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura maximoak 27-29 graduan joko du goia.

Bihar. Giro lasaiagoa izango dugu. Egun osoan zehar zeruan hodeiak eta ostarteak tartekatuko zaizkigu. Eguna- ren hasieran eta amaieran hodeiak ugariagoak izango dira. Aldiz, egu- naren erdiko orduetan ostarte za- balak izango dira. Haizeak ipar- mendebaldetik joko du eta termo- metroek pare bat gradu behera egingo dute, maximoak 25-27 graduan joko duelarik goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esa- nen eta iritzien erantzukizunik.

Amezketak gordetzen dituen altxorak ikusi eta ezagutzeko aukera izan zuten bisitariak igandean; igandero bi bisita gidatu izango dira aukeran, aldeztu aurretik izena emanda

Argi ezkutuarien bila

Erredakzioa Amezketa

Koronabirusak eragin- dako egoera berezia dela eta, Amezketa- ko Udalak turismoa- ren aldeko apustua egin eta Amezketako txoko ezku- tuak ezagutu ahal izateko bisita gidatuak antolatu ditu.

Elizaren alboko aparkalekutik hasi eta errota zaharrean buka- tuko den ordubeteko ibilaldia es- kainiko dute. Igandean egin zu- ten lehena, eta Mikel Arteaga Turismo zinegotziaren lagun- tzarekin batera gidatu zituen bi- sita gidatuak Agurtzane Gar- mendia herritarrek.

ABUZTUAREN 30A BITARTE

Pasa den igandean izan zen lehe- na, eta abuztuaren 30a bitarte, igandero egingo ditu bisita gida- tuak Garmendiak. Bi saio eskai- niko dituzte, 12:00etan eta 16:00etan. Amezketa herriaren bisita gidatuen parte hartu nahi duenak, ordea, aldeztu aurretik izena eman beharko du www.amezketa.eus webgunea- ren bidez.



Amezketako txokoak ezagutzeko aukera ematen du bisitak. LEYRE CARRASCO



ANOETA - 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

Informazio guztia:

KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484

943 69 02 97